

Euren erdian igo zinaian izarrez gora,
Eurakaz nasi kantu artean bizitera.

Eurakaz naste errubageen artean zagoz,
Iñoz orbandu etzendulako arimea,
Edurrezkoak zure jantziak dirudie ta
Eguzkia duiñ argia dozu arpegia.

Orche gozetan bizi zaitetz bai, alabachoa,
Orban bagako Bildots otzana adoretan,
Erreguturik egunen baten zure aitamok
Igo daigula orrañe bera alabetan.

Orresegaitik zuk ez daukazu damurik oraiñ,
Aita ta ama bakarrik emen ichiteaz,
Eriotzea irago eta zagozalako,
Atsegiñetan emendik orra igoteaz.

Zure gorputza badago bere lurperatuta,
Egunen baten aterako da ain ederrik,
Azuzena ta lirio zuri zuriak baño
Zuriago ta iñon orbancho bat bagerik.

Agur, umecho, ikusi arte orche zeruan,
Agur, agur bai, gelditzen gara gu lurrean,
Agur, biotzak zerren eroan zeuk deuskuzuzan,
Agur ume, guk pozik ez dogu emen bean.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

1888-ko urtean.



Arrese maitea: Negarrez irakurri det zure eskutitza; negarrez zure alaba aingeruari donkitu diozun moldaera samurra. ¡A!... zure alaba ez da ill, Arrese maitea, poztu eta begira Zerura; askotan, áurrak lurraren gañean ikusirik, ta lurra zér dan pensaturik, alako tristura illun bat sentitzen det, baña Pilarcho zureak poztutzen nau Birjiña Amaren oñetan ikusten detalako bere aitaren bersoak eskeintzen dizkala! ¡Zorionekoa zu! Nik ez ezagutu arren, esan zakitza au bera zure emazteari, ta biak artu ditzatzute, alde batetik nere pozaren agiria, ta bestetik nere malkoak. Agur biotzetik!

ANTONIO ARZÁC.

Donostian, 1888-ko Uztaren 10-ean.